

3 EZKUTUKO SARRERA

Eskubeltzekoak aireportuan eseri eta Idoiak esan zuena adi-adi entzun zuten.

–Orain badakigu takoirik ez duen gizonak galtza koadrodu-nak daramatzala –esan zuen Felixek.

–Baina aurpegiz ez dugu ezagutzen –erantzun zuen Pottolok–. Etxean sartzen bada, harrapatuko dugu. Gutako bakoitzak ate bat zaindu behar du.

–Eta leihoak? –galderu zion Idoiak.

–Noski, horiek ere zaindu behar dira –Felixek.

Handik hiru minutura bakoitza bere lekuan zegoen. Felixek aurreko atea zaintzen zuen, Pottolok ubide aldeko zatia, Idoia lorategiko atearen ondoan zegoen egunkarian eginiko bi zulo-txotatik kalera begira. Kiki k. ipotx mozorrotu zen eta, igeltsuz-koa balitz bezala, belaunetaraino iristen zitzaizkion asunen artean zegoen geldi-geldi. Sagu bat ere ez zen pasatuko etxearen atzealdetik berak ikusi gabe.

Bi ordu iragan ziren eta inor ez zen etxe barrura sartu.

“Norbait zaintzea baino gauza aspergarriagorik ez dago iker-tzaile batentzat”, pentsatzen zuen Pottolok aho-zabalka. “Arraioa!, bururatu zitzaion bat-batean Kiki k.-i. Gure laguna denbora guztian etxe barruan dago. Dударik gabe, badago he-men ezkutuko sarreraren bat. Eta ederki kamuflatu dago gai-nera! Bai horixe!”

☐ Non zegoen ezkutuko sarrera?

